ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko urriaren 30a, ostirala • 125 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudio udalerriko adinekoen kontseiluaren antolaketa- eta funtzionamendurako erreglamendu berria. Behin betiko onespena (2026-1905)

Laudioko Udalaren Osoko Bilkurak, 2026ko abuztuaren 31n izandako bileran, "Laudio udalerriko adinekoen kontseiluaren antolaketa- eta funtzionamendurako erreglamendu berria" izenekoaren hasierako onespena ematea erabaki zuen. 2026ko irailaren 9an jendaurrean jartzeko iragarkia argitaratu zen ALHAOn 103. zenbakia, baita udalaren webgunean, udaleko iragarkioholean eta hedabide sozialetan ere. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritako epea igarota, lege-testu horren 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, eta bertan erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betikotzat joko da eta testua osorik argitaratuko da, 65.2 artikuluan adierazitako hamabost egun balioduneko epea igaro ondoren.

Laudio, 2026ko urriaren 22a

Alkate-udalburua
AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

LAUDIO UDALERRIKO ADINEKOEN KONTSEILUAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDU ARAUDIA

Zioen azalpena

Biztanleriaren zahartzea, zalantzarik gabe, egitura sozial eta demografikoa aldatzen ari den fenomenoa da. Horregatik, Adinekoekiko Euskal Estrategian (2021-2024 / 2026-2029) aipatzen den bezala, beharrezkoa da zahartze aktiboa, osasungarria eta duina sustatzea, autonomia pertsonala ardatz, eta, horrekin batera, parte-hartze soziala sustatzea, organo sektorialak sortuz adinekoen protagonismoa bultzatze aldera.

Eusko Legebiltzarreko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, herritarrek sisteman parte hartzea funtsezko printzipioa da. Botere publikoen betebeharra da parte-hartze demokratiko hori eta gizarte-lankidetza sustatzea, zeina partaidetza- eta kontsulta-organoen bidez formalizatuko baita, eta gizartearen inplikazio aktiboa ziurtatzen duten egiturak bermatzea, gizarte-ongizatea hobetzeari begira.

Kontseiluan ordezkaritza duten zinegotziek funtsezko zeregina dute, adinekoen, erakundeen eta laudioarren arteko lotura baitira. Horregatik, parte-hartze aktiboa eta konprometitua sustatuko da, bai Kontseiluaren beraren bilkuretan, bai bestelako gune eta foro komunitarioetan ere, lagungarriak baitira Laudioko adinekoen beharrak, proposamenak eta kezkak jaso, partekatu eta helarazteko. Ordezkarien inplikazioa eta prestasuna giltzarri izango dira Kontseilua sendotzeko, dinamikoa eta parte-hartzailea izan dadin, udalerriaren errealitatearekin konektatuta.

Horregatik guztiagatik, araudi honen bidez, Adinekoen Udal Kontseilua arautzen da, arlo horretan parte-hartzea eta kontsulta sustatzeko funtsezko elementu gisa.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Izaera

1.- Araudi honen xedea da Laudioko Adinekoen Kontseilua arautzea, kontsulta-, eztabaida- eta partaidetza-organo gisa. Udal-jarduketarako edo eragileen arteko lankidetzarako proposamenak jaso, sustatu, aztertu eta egitea da asmoa, adinekoei dagokienez planteatzen diren gaietan, eta Laudio udalerrian proposamen horiek sustatzeko helburu orokorraren barruan:

a) Zahartze osasungarria.

b) Adinekoen ahalduntzea.

c) Ezagutza, bizitzaren etapa guztietan.

d) Adinekoen kolektiboak udal-organoen erabakietan duen eragina.

e) Adinekoen arteko desberdinkeriak murriztea.

f) Jorratzen diren gai guztietan genero-ikuspegia eta berdintasun-, irisgarritasun- eta inklusio-printzipioen ikuspegia zeharka txerta daitezen zaintzea, Kontseiluan islatuta gera dadin udalerriko adinekoen aniztasuna.

g) Bere eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen den beste edozein helburu.

2.- Adinekoen Kontseiluak aukera emango du adinekoen ahotsa txertatzeko udal-erabakietan, euren beharrak, esperientziak eta proposamenak bertoko estrategiaren parte izan daitezen. Horretarako, partaidetza, belaunaldien

arteko lankidetza eta adinekoentzako udal-politika eraginkorragoak sustatuko ditu, Laudio inklusiboagoa eta atseginagoa eraikitzeari begira.

3.- Laudioko Udaleko Gizarte Kohesiorako Zerbitzuari (edo zerbitzu baliokideari) atxikita egongo da Adinekoen Kontseilua.

2. artikulua.- Adinekoen Kontseiluaren eginkizunak

1.- Aurreko artikuluan zehaztutako helburuak betetzen direla bermatzeko, hauek dira Kontseiluaren berezko eginkizunak, besteak beste:

a) Udalerrian, adinekoen zahartze-prozesuan bidelagun diren pertsona, erakunde eta eragileen parte-hartze zuzena sustatzea.

a) Adinekoen bizi-kalitatea babestu eta sustatu dadin bultzatzea.

c) Zahartze aktibo eta osasungarria sustatzea, eta adinekoei aitortzea gizartean duten zeregina eta komunitateari egiten dioten ekarpena.

d) Adinekoen irisgarritasuna zaindu, babestu eta sustatzea, eten digitalaren aurka aktiboki borrokatzea eta haien alfabetatze teknologikoa sustatzea.

e) Udalerriko adinekoen bizi-kalitatea etengabe hobetzen laguntzea, euren premia, interes eta eskubideen analisi partekatuaren bidez.

f) Esparru eta prozesu parte-hartzaileak bultzatzea, adinekoen autonomia, erantzunkidetasuna eta ahalduntzea indartzeko, erabaki publikoak hartzeari begira.

g) Adinekoengan eragina izan lezaketen desberdinkeriak eta bazterkeria-egoerak murriztea, ekitatea eta baliabide komunitarioetarako sarbide unibertsala sustatuz.

h) Adinekoen sektorera bideratutako programei eta jarduketei buruzko proposamenak egitea, eta Udalarekin lankidetzan aritzea horiek martxan jartzeko.

i) Kontseiluaren xede den eremura bideratutako programei eta jarduerei buruzko proposamenak egitea udalerriari, eta Udalarekin lankidetzan aritzea horiek martxan jartzeko. Besteak beste, lotesleak ez diren aurrekontu-zuzkidurak proposatzea, egindako proposamenak gauzatu daitezen.

Nolanahi ere, aurrekontu-zuzkiduren proposamenak aurrekontu parte-hartzaileen bidez egingo dira.

j) Kontseiluaren xede den eremuan diharduten erakunde publiko edo pribatuen arteko koordinazioa indartzea.

k) Bere jarduera eremuarekin lotura duten azterlanak, txostenak eta jarduerak egin daitezen sustatzea.

l) Adinekoen Kontseiluarekin lotura zuzena duen udal-zerbitzuaren urteko memoria eta jarduketa-programa eztabaidatu eta baloratzea.

m) Adinekoen eremuan esku hartzen duten eragile publiko eta sozialen arteko koordinazioa bultzatzea, Laudio atseginagoa izan dadin adin guztietako herritarrentzat.

m) Oro har, beste edozein eginkizun, baldin eta horrek aukera ematen badu esku-hartze publikoa behar duten beharrizanak hobeto asetzeko, eta herritarrei aukera ematen badie Kontseiluaren lanaren xede diren gai publikoei buruzko erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko.

2.- Adinekoen Kontseiluaren eginkizunak txosten, eskaera, ekimen, proposamen edo jarduera-planen bidez gauzatuko dira, Kontseiluko kideen parte-hartze aktiboarekin.

Erabakiek eta iritziek deliberazio-izaera izango dute, eta ez dira inoiz lotesleak izango Udaleko erabaki-organoentzat. Beraz, eginkizun horiek ez dituzte inola ere eragotziko bertoko ordezkaritza-organoei dagozkien erabakitze-ahalmenak.

3.- Kontseiluaren barruan egindako txosten, eskaera, ekimen, proposamena edo jarduera-planak dagokion informazio-batzordean azalduko dira; hau da, Kontseilua egin osteko lehenengo informazio-batzordean, erabakitzeko legitimazioa duten udal-organoek azter ditzaten.

II. KAPITULUA: KONTSEILUKO ORGANOAK.- OSAERA ETA FUNTZIONAMENDUA

LEHENENGO ATALA: OSAERA

3. artikulua.- Kontseiluaren osaera

1.- Kide hauek osatuko dute Laudio udalerriko Adinekoen Kontseilua:

1) Kontseiluburua
2) Idazkaria
3) Kontseilukideak

Kontseiluko kide bakoitzak, ahal den guztietan, ordezko norbait izango du.

2.- Kontseiluko kide izateak, betiere, berekin dakar zahartze osasungarria sustatzeko eta adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak gauzatzen laguntzea.

3.- Nolanahi ere, Kontseiluko kide izateak bilkuretan –bai Kontseiluan bertan, bai, hala badagokio, eratzen diren lan-batzordeetan– parte hartzeko konpromisoa ekarriko du, behar bezala justifikatutako salbuespen-kasuetan izan ezik.

4.- Laudioko Adinekoen Kontseiluan parte hartzeak ez du inolako ordainsari-eskubiderik sortuko, ez konpentsazio ekonomikorik, ezta gauzazko ordainketarik ere.

4. artikulua.- Adinekoen Kontseiluko burua

1-. Adinekoen Politika Aktiboetako edo udal-zerbitzu baliokideko zinegotzia izango da kontseiluburua.

Alkate-udalburuak, halaber, kontseiluburu ordezkoa izendatuko du Udaleko zinegotzien artetik.

Bi kasu horiek, hau da, zinegotzia kontseiluburu izatea eta haren ordezkoa izendatzea, Kontseiluaren osaera zehazten duen alkate-udalburuaren dekretuan jasoko dira.

2.- Kontseiluburuak Kontseiluaren bilkuretan parte hartuko du; hitza eta botoa izango ditu.

3.- Hauek dira, besteak beste, kontseiluburuaren eginkizunak:

a) Laudioko Udalari eta haren organoei jakinaraztea Kontseiluak zer erabaki hartu duen.

b) Kontseiluaren eta, hala badagokio, eratutako lan-batzordeen bilkuretarako deialdiak egitea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

c) Kontseiluburuak bilkurak zuzenduko ditu; Kontseiluaren eta, hala badagokio, eratutako lan-batzordeetan ematen diren eztabaida eta bozketetan moderatzaile arituko da, eta behar diren neurriak hartuko ditu bilkurak behar bezala gauzatzen direla bermatzeko.

d) Araudi hau aplikatzean sortzen diren zalantzak argitzea.

e) Kontseiluaren eta Udaleko beste edozein organoren arteko harremana koordinatzea.

4.- Adinekoen Politika Aktiboetako edo udal-zerbitzu baliokideko zinegotzi eskuordea izateagatik kontseiluburu izendatutako pertsonak kontseiluburu izateari utziko dio automatikoki, Zerbitzuaren eskuordetza errebokatzen den unean.

Era berean, Adinekoen Kontseiluko kontseiluburuaren ordezkoak ere izaera hori galduko du, alkate-udalburuak beste izendapen bat egiten badu.

5. artikulua.- Adinekoen Kontseiluko idazkaria

1.- Teknikari batek egingo ditu Kontseiluko idazkari-lanak, eta alkate-udalburuak izendatuko du, Adinekoen Politika Aktiboetako edo zerbitzu baliokideko zinegotziak proposatuta.

2.- Kontseiluko idazkariak Adinekoen Kontseiluaren bilkuretan parte hartuko du; hitza izango du, baina botorik ez.

3.- Hauek dira, besteak beste, kontseiluko idazkariaren eginkizunak:

a) Kontseiluaren bilkuretarako deialdiak prestatu eta bidaltzea.

a) Kontseiluaren bilkuren akta egitea.

b) Kontseilukideen erregistroa eguneratuta edukitzea, alkate-udalburuaren bidez emandako dekretuen arabera.

c) Kontseiluari laguntza teknikoa ematea, aurrekontuaren jarraipena eta kontrola egitea, etab.

d) Kontseiluaren jarduketen legezkotasun formala eta materiala zaintzea, Kontseiluaren jarduketak ziurtatzea, eta eraketarako nahiz erabakiak hartzeko prozedura eta arauak errespeta daitezela bermatzea.

e) Jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo karguagatik eskura eduki beharko lukeen beste edozein dokumentu jasotzea.

f) Kontseiluak eta/edo kontseiluburuak eskatzen dizkion bestelako zereginak.

4.- Adinekoen Kontseiluko idazkari izateari utziko zaio, baldin eta alkate-udalburuak beste norbait izendatzen badu, Adinekoen Politika Aktiboetako edo zerbitzu baliokideko zinegotziak hala proposatuta.

6. artikulua.- Adinekoen Kontseiluko kontseilukideak

1.- Laudioko Udaleko Adinekoen Kontseiluan, honako hauek izango dira eskubide osoko kontseilukide, eta hitza eta botoa izango dituzte:

a) Laudion erroldatuta dagoen 60 urtetik gorako edonor, Kontseiluan parte hartzeko erabakia eta nahia adierazten baditu.

a) Laudion egoitza eta ordezkaritza duen sare, elkarte, herritar-erakunde, talde egonkor, erakunde edo fundazio oro, baldin eta bere helburu soziala zahartze osasungarria sustatzeko eta adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko jarduerak gauzatzea bada.

Laudio udalerriko Adinekoen Kontseiluan eskubide osoko 20 kide egongo dira gehienez, eta aurreko a) eta b) apartatuetan adierazitakoak izango dira.

2.- Ikuspegi instituzionaletik, bestalde, Laudioko udalbatzako udal-talde politiko bakoitzak zinegotzi bana izango du Adinekoen Kontseiluan; zinegotzi horiek kontseilukide izango dira. Salbuespena kontseiluburuaren udal-talde politikoa izango da. Nolanahi ere, ordezkari institucional izendatutako zinegotziek hitza eta botoa izango dituzte.

3.- Adinekoen arloko adituek eta pertsona entzutetsuek ere parte hartu ahalko dute Laudioko Adinekoen Kontseiluan, unean-unean eta/edo aldi baterako, gai zehatz eta espezifikoak aztertu eta horiei buruzko aholkuak emateko.

Nolanahi ere, Laudioko gazteen eta gazte-elkarteen parte-hartzea sustatuko da, belaunaldien arteko elkarrizketa eta elkarrekiko ikaskuntza sendotzeko, eta, horrekin batera, komunitatearen kohesioa, parte-hartzea eta elkartasuna areagotuko duten topaguneak sortzeko.

Horretarako, Kontseiluak gehiengo soilez erabakiko du pertsona horiek Kontseiluan parte hartuko duten, baita parte-hartzearen eremu materiala eta denbora-eremua zein izango diren ere. Nolanahi ere, pertsona horiek ez dute boto-eskubiderik izango.

4.- Adinekoen Kontseiluaren osaerari dagokionez, ordezkaritza orekatua eta inklusiboa dela bermatzen saiatuko da, emakumeen eta gizonen parte-hartze parekidea bultzatuko da, eta profil, ibilbide eta errealitate desberdinak dituzten pertsonen presentzia sustatuko.

7. artikulua.- Adinekoen Kontseiluko kontseilukide izatea

1.- Adinekoen Kontseilua osorik berrituko da Laudioko Udalaren legealdi bakoitzean.

Nolanahi ere, legealdian kideren batek kide izaera galtzen badu eta hutsik dagoen izendapentzat hartzen bada, hurrengo zenbakian deskribatutako izapide berari jarraituko zaio beste kide bat izendatzeko.

2.- Kontseilua osorik berritzeko, legealdi bakoitzaren hasieran, interesdunek, baita sare, elkarte, herritar-erakunde, talde egonkor, erakunde edo fundazioek ere, baldin eta araudi honetako 6. artikuluaren 1. apartatuan aipatzen diren kontseilukide izateko interesa badute, Laudioko Udaleko sarrera-erregistroan eskabidea aurkeztu beharko dute, eta honako datu hauek adierazi:

a) Izen-abizenak.

b) Kontseiluan parte hartzeko arrazoien azalpena.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, zeinetan adierazten baita norberak interes orokorra agertzen duela eta irabazi-asmorik ez duela Kontseiluaren xede eta helburuei dagokienez.

c) Laudioko sare, adinekoen elkarte, elkarte misto, herritar-erakunde, talde egonkor, erakunde edo fundazioen ordezkari jardunez gero, izaera hori adierazi egin beharko da, egiaztagiria aurkeztu, eta ordezkoa nor den jakinarazi.

d) Deialdiak eta jakinarazpenak jasotzeko posta-helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefonoa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Kontseilua kudeatzeko eskumena duen udal-zerbitzuak zehaztuko du zein den eskabideak aurkezteko epea.

Epe horretan aurkeztutako eskabideen kopurua Kontseiluko kide titular guztien kopurua baino handiagoa bada, interesdun guztiek adostuko dute, aldez aurretik, titularren eta ordezkoen izendapena. Adostasunera heltzen ez badira, zozketa bidez erabakiko da nor izango diren titular eta nor ordezko, eskabidea aurkeztu duten interesdun guztien artean

3.- Udal-talde politiko bakoitzeko ordezkariaren izendapena bideratzeko, bozeramaileek idazki bat aurkeztu beharko dute Laudioko Udaleko sarrera-erregistroan. Idazki horretan, titular eta ordezko bana izendatu beharko dira.

Kontseilua kudeatzeko eskumena duen udal-zerbitzuak zehaztuko du zein den eskabideak aurkezteko epea.

4.- Aurreko apartatuetan adierazitako idazkiak aurkeztutakoan, eta, hala badagokio, beharrezko izapideak egin ostean, alkate-udalburuak egingo ditu izendapenak, dekretu bidez. Dekretu hori eskabidea aurkeztu duten interesdun guztiei jakinaraziko zaie, baita udal-talde politikoei ere.

5.- Kontseilukideen datuetan aldaketarik eginez gero, kontseiluburuari jakinarazi beharko zaio, aldaketa egin eta hurrengo hilabetearen barruan, aldaketa izapidetu dadin.

6.- Nolanahi ere, kontseilukide izateak berarekin dakar araudi hau oso-osorik onartzea, hartutako erabakiak betetzeko konpromisoa hartzea, eta, kontseilukidea ordezkari instituzionala bada, kide den erakundeari edo udal-talde politikoari jakinaraztea Kontseiluan zer jorratu eta erabaki den.

8. artikulua.- Adinekoen Kontseiluko kontseilukide izateari uztea

1.- Laudioko Adinekoen Kontseiluko kontseilukideen kasuan, araudi honetako 6. artikuluaren 1. apartatuari dagokionez, hauek dira Kontseiluko kide izateari uzteko arrazoiak:

a) Norbere borondatez, Laudioko Udaleko sarrera-erregistroan idazki bat aurkeztuz, kontseiluburuari zuzenduta

6.1.a) artikuluan zehazten den kide izaera galtzen bada, izendapena hutsik dagoela ulertuko da apartatu honetan, ondoren 7.2 artikuluko prozeduraren bidez beste kide bat izendatzeko.

a) Jada ez izatea izendapena eragin zuen erakunde edo eragileko kide. Kasu horretan, ez da ulertuko hutsik dagoen izendapena dela, eta izendapena eragin zuen erakundeak eta/edo agenteak idazkia aurkeztu beharko du Udaleko sarrera-erregistroan, kontseiluburuari zuzenduta. Egoera eta inguruabarrak zein diren azalduko dira idazkian, eta beste norbait kontseilukide izendatzeko proposamena egingo da.

b) Ordezkari gisa diharduten Laudioko sare, elkarte, herritar-erakunde, talde egonkor, erakunde edo fundazioa desegitea. Kasuan kasuko erakunde edo talde egonkorren ordezkari ofizialek jakinarazi beharko dute desegitea. Horretarako, idazki bat aurkeztu beharko dute Udaleko sarrera-erregistroan, kontseiluburuari zuzenduta.

Kasu horretan, hutsik dagoen izendapena dela ulertuko da, 7.2 artikuluko prozeduraren bidez beste kide bat izendatzeko.

c) Ordezkari gisa diharduen erakundeak edo talde egonkorrak jakinarazpen bat bidaltzea. Horretarako, idazki bat aurkeztu beharko dute Udaleko sarrera-erregistroan, kontseiluburuari zuzenduta.

Kasu horretan, ez da ulertuko hutsik dagoen izendapena dela, eta izendapena eragin zuen erakundeak eta/edo agenteak idazkia aurkeztuko du Laudioko Udaleko sarrera-erregistroan, kontseiluburuari zuzenduta. Egoera eta

inguruabarrak zein diren azalduko dira idazkian, eta beste norbait kontseilukide izendatzeko proposamena egingo da.

e) Kontseiluak deitzen dituen ohiko bilkuretara behin eta berriz ez joatea, arrazoirik gabe. Horretarako, errepikatutzat jotzen da ondoz ondoko 3 bilkuratara ez joatea, edo 4 bilkuratara ez joatea urteko aldi berean.

e) Kontseiluaren printzipio eta helburuen aurkako jarrera edo jokabidea izatea, edo Kontseilua osatzen duten pertsona, erakunde edo talde egonkorrekiko errespetua galtzea, eta/edo bertan ematen diren iritzi eta hartzen diren erabakiei balioa kentzea.

Nolanahi ere, hauek izango dira Kontseiluaren printzipio gidariak: errespetua, entzute aktiboa, elkarrizketa eta iritzi-aniztasunaren aitortza. Bilkurak behar bezala egitea eragotz lezaketen edo Kontseiluaren helburu eta balioen aurkakoak diren jarrera edo portaeren aurrean, lehenik eta behin, gogoeta- eta elkarrizketa-prozesu bat sustatuko da, parte-hartzaileen eta erakundeen arteko bizikidetza-, lankidetza- eta errespetu-giroa berreskuratzeko.

Betiere konponbide partekatuak bilatuko dira; baina, jokabide horiek jarraituz gero, artikulu honetan ezarritako prozedurari hasiera emango zaio.

2.- Laudioko Adinekoen Kontseiluko kide izateari uzteko, aurreko f) eta g) apartatuetan adierazitako kasuetan, aldez aurretik espediente bat izapidetu beharko da, Kontseiluko idazkariak gainbegiratuta. Hau izango da edukia:

a) Espedientea hasteko erabakia, Kontseiluaren baitan hartutakoa. Ukitutako pertsonari ere deialdia jakinaraziko zaio, haren iritzia entzun dadin bilkuran bertan; halere, ez du inola ere boto-eskubiderik izango.

a) Ukitutako pertsonari, talde egonkorrari edo erakundeari jakinaraztea, hala badagokio, gutxienez hamabost laneguneko epea duela alegazioak aurkezteko.

b) Aurkeztutako alegazioak Kontseiluko kideei bidaliko zaizkie, azter ditzaten.

c) Aurkeztutako alegazioak ebatzi egingo dira. Kide izateari uzteko ebazpenak, hala badagokio, gehiengo soila behar du, eta Kontseiluak emango du ebazpena. Ukitutako pertsonari ere deialdia jakinaraziko zaio, haren iritzia entzuteko; halere, ez du inola ere boto-eskubiderik izango.

3.- Ebazpen hori Kontseiluan hartu ondoren, alkate-udalburuari jakinaraziko zaio, hutsik dagoen izendapena bete eta beste kide bat izendatzeko. Izendapena egiteko, honako hau hartuko da kontuan

a) 60 urtetik gorako laudioarra bada, hutsik dagoen izendapentzat hartuko da, izendapenaren ondorioetarako, araudi honen 7.2 artikuluan ezarritako prozeduraren arabera.

a) Laudion egoitza eta ordezkaritza duen sare, elkarte, herritar-erakunde, talde egonkor, erakunde edo fundazioa bada, ez da hutsik dagoen izendapentzat hartuko. Beraz, hari dagokio kontseilukide berria izendatzeko proposamena egitea, zeinak automatikoki beteko baitu kide izateari utzi dion pertsonaren lekua.

4.- Laudioko Adinekoen Kontseiluko kontseilukide diren udal-talde politikoen ordezkarien kasuan, hauek dira Kontseiluko kide izateari uzteko arrazoiak:

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

a) Zinegotzi izateari uztea.

a) Dagokion udal-talde politikoaren bozeramaileak idazkia aurkeztea Udaleko sarrera-erregistroan, kontseiluburuari zuzenduta. Kasu horretan, taldeak titularra eta ordezkoa adierazi beharko ditu.

b) Kontseiluak deitzen dituen ohiko bilkuretara behin eta berriz ez joatea, ez titularra ez ordezkoa, arrazoirik gabe. Horretarako, errepikatutzat jotzen da ondoz ondoko 3 bilkuratara ez joatea, edo 4 bilkuratara ez joatea urteko aldi berean.

c) Kontseiluaren printzipio eta helburuen aurkako jarrera edo jokabidea izatea, Kontseilua osatzen duten pertsona, elkarte edo erakundeekiko errespetua galtzea, eta/edo bertan sortzen diren iritzi eta erabakiei balioa kentzea.

BIGARREN ATALA: FUNTZIONAMENDUA

9. artikulua.- Kontseiluaren funtzionamendua: Kontseilua eta lan-batzorde iraunkorrak

1.- Laudioko Adinekoen Kontseiluak honela jardungo du:

a) Kontseilua
a) Lan-batzordeak

2.- Kontseiluburuak, idazkariak eta kontseilukide guztiek osatzen dute Kontseilua, gaiarekin lotura duen ordezkaritza-organo gorena.

3.- Lan-batzordeak lantaldeak dira, eta Kontseiluan bertan ezarritako arauen araberakoak dira euren antolaketa, osaera eta funtzionamendua.

10. artikulua.- Kontseiluaren eginkizunak

Kontseiluaren berezko eginkizunak dira, besteak beste:

a) Kontseiluaren lan-ildo orokorrak ezartzea.

a) Kontseiluaren urteko jardueren programa eta urteko memoria diseinatu, planifikatu eta ebaluatzea.

b) Udalaren aurrekontu orokorretan aurrekontu-zuzkidura proposatzea, bere baitan onartutako urteko jardueren programa oinarritzat hartuta.

c) Lan-batzordeak proposatu eta sortzea, eta euren antolaketa, osaera eta funtzionamendua erabakitzea.

d) Kontseiluaren araudian aldaketak txerta daitezen proposatzea, toki-araubideko arauetan xedatutakoaren arabera izapidetzeko.

e) Adinekoekin zerikusia duen edozein gairi buruzko iritzia ematea, betiere erakunde batek eskatzen edo egokitzat jotzen badu.

f) Adinekoentzat interesgarritzat jotzen den edozein xedapen, programa, proiektu, plan edo jarduerari buruzko irizpena ematea.

g) Kontseiluaren ohiko gaiak kudeatzea.

h) Ohiko bilkuretako gai-zerrendetan sartu beharreko gaiak proposatzea. Nolanahi ere, kontseiluburuak du

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

deialdia egiteko eskumena.

i) Laudioko adinekoen interesak babestu eta sustatzeko beharrezkotzat jotzen dituen proposamenak egitea udal-zerbitzuei. Nolanahi ere, behin proposamenak onetsita, kontseiluburuak zerbitzu horiei bidaliko dizkie.

j) Irizpideak ezartzea, Kontseiluaren helburuekin eta eginkizunekin zerikusia duten eta interes orokorrekoak diren komunikabide, jardunaldi, topaketa, mintegi edo bestelako bilera edo ekitaldietara joateko.

k) Kontseiluari diskriminazioari buruz jakinarazten zaizkion salaketa guztiak jaso eta organo eskudunetara bideratzea.

11. artikulua.- Kontseiluaren funtzionamendua

Adinekoen Kontseiluaren funtzionamendua arau hauen araberakoa izango da:

a) Maiztasuna: Kontseilua urtean 4 aldiz bilduko da ohiko bilkuran. Nolanahi ere, premia badago edo komenigarria bada, urtean gehienez ere 2 ezohiko bilkura egingo dira. Ezohiko bilkura horiek kontseiluburuak deituko ditu, bere ekimenez edo Kontseiluko kideen heren batek gutxienez eskatuta.

Botoa emateko eskubidea duten kontseilukide guztiek erabakiko dute ohiko bilkuren eguna eta ordua, Kontseiluan bertan, legegintzaldi bakoitzaren hasieran deitutako bileran. Nolanahi ere, ohiko bilkuretarako deialdia gutxienez hamar egun baliodun lehenago egingo da, eta deialdiaren agiriarekin batera, gai-zerrenda bidali beharko da, baita jorratuko diren gaiei buruzko dokumentazio guztia ere.

Ezohiko bilkuretarako deialdia, bestalde, gutxienez bi egun baliodun lehenago egingo da, eta deialdiaren agiriarekin batera, gai-zerrenda bidali beharko da, baita jorratuko diren gaiei buruzko dokumentazio guztia ere.

Presako ezohiko bilkuretarako deialdiak ere egin ahalko dira. Kasu horretan, deialdia gutxienez 24 ordu lehenago egitea nahikoa izango da, eta jorratu beharreko gaiak ezagutzeko beharrezko dokumentazioa erantsi beharko da. Gai-zerrendako lehenengo puntuan bilkuraren presako izaera berretsi beharko da, boto-eskubidea duten bertaratutako kideen gehiengo soilez. Premiazkoa dela onesten ez bada, bilkura amaitutzat emango da, eta ez da proposatutako gaiari buruzko eztabaidarik sortuko.

a) Bertaratze-quoruma: bilkurak balio osoz egiteko –ohikoak zein ezohikoak izan–, beharrezkoa da kontseiluburua, idazkaria eta, gutxienez, kideen erdia bertaratzea lehenengo deialdira.

Lehenengo deialdian quorum nahikorik ez badago, bigarren deialdian bilkura egin ahal izango da, hogeita hamar minutu geroago, baldin eta kontseiluburua, idazkaria eta, gutxienez, kide guztien herena bertaratzen badira.

b) Gai-zerrendatik kanpoko gaiak ohiko bilkuretan: ohiko bilkuretako gai-zerrendan jasotako gaiak amaituta, eta bilkura bera amaitu baino lehen, edozein kidek aurkeztu ahal izango du gai-zerrendan sartuta ez dagoen gairen bat. Gai horiek jorratu ahal izango dira, aldez aurretik bozketa eginda. Beharrezkoa izango da bertaratutakoen artean botoa emateko eskubidea duten kideen gehiengo soilak, gutxienez, aldeko botoa ematea.

Ezingo da gai-zerrendatik kanpoko gairik jorratu ezohiko bilkuretan, ezta ezohiko eta presako bilkuretan ere.

c) Gai-zerrenda osatzea: kontseiluburuari dagozkio bilkurako gai-zerrenda osatu, sinatu eta bidaltzea.

Gai-zerrenda egiterakoan, kontseiluburuak honako hauek hartuko ditu kontuan:

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

- Bere ekimenez egokitzat jotzen dituen gaiak, edo beste norbaitek Udaleko Erregistro Orokorrean idazki bidez aurkeztutakoak, egokitzat jotzen baditu.

- Kontseiluak proposatutako gaiak, ondorengo ohiko bilkurako gai-zerrendan sartu beharrekoak.

Edonola ere, proposamen horiek Adinekoen Kontseiluko buruari jakinarazi beharko zaizkio, hurrengo bilkura egiteko aurreikusitako data baino 15 egun baliodun lehenago gutxienez.

d) Bozketak: planteatutako gaiak Kontseiluan jorratuko dira, adostasunez onetsiak izan daitezen. Ezin bada adostasunik lortu, bertaratutakoen artean boto-eskubidea duten kideek botoa emango dute, eta gehiengo soilaren aldeko botoarekin hartuko dira erabakiak.

e) Aktak euskaraz eta gaztelaniaz idatziko ditu idazkariak. Akta horietan labur-labur jasoko dira eztabaidatutako gaiei eta hartutako erabakiei buruzko iritziak. Aktak Kontseiluko kide guztiei bidaliko zaizkie, hurrengo ohiko bilkuran onets ditzaten. Nolanahi ere, behin onetsita, aktak Udalaren webgunean argitaratuko dira.

12. artikulua.- Lan-batzordeak

Lan-batzordeak azterketa- eta lan-organoak dira, Adinekoen Kontseiluaren mendekoak. Lan-batzordeen eginkizuna da Kontseiluak esleitutako helburuetarako komenigarritzat jotzen diren txosten eta proposamenak egitea.

Lan-batzordeak Kontseiluan sortuko dira, eta han ezarriko dira euren izena, osaera eta funtzionamendua. Eratze-erabakian zehaztuko da Udaleko zein eraikinetan edo lokaletan egiten diren bilkurak.

Lan-batzordeak egonkorrak izan daitezke, edo gai zehatzak aztertzeko eratu.

Batzordeen lanaren eta azterketaren emaitzak txosten eta/edo proposamenetan islatuko dira, eta txosten eta/edo proposamen horiek Kontseiluari bidaliko zaizkio, jakinaren gainean egon dadin eta, hala badagokio, onar ditzan.

III. KAPITULUA: HERRITARREN PARTE-HARTZEA

13. artikulua.- Herritarren parte-hartzea

Kontseiluak bere kudeaketaren eta jarduera-eremuarekin lotutako gaien berri emango die herritarrei, eskura dituen eta egokitzat jotzen dituen bitarteko eta egintzen bidez. Halaber, herritarren iritzia jaso ahal izango du, eztabaida, bilera, kontsulta, inkesta edo egokitzat jotzen duen beste edozein bitartekoren bidez.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1.- Behin araudi hau indarrean, eta 2027-2031 legegintzaldia hasi arte, Kontseilua eratzeko bilkurarako deialdia egingo da. Horretarako, araudi honen 6. artikuluan adierazitako prozedurari jarraituko zaio.

2.- Araudi hau indarrean sartu ondorengo lehen toki-hauteskundeen ostean, salbuespen gisa, araudi honen 6.2 artikuluan zehaztutako ordezkaritza instituzionala baino ez da berrituko.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Toki-araubideari buruzko arauei jarraikiz, osoko bilkuran onetsiko dira araudi honetan egiten diren aldaketak –araubidea osorik zein zati batean aldatzeko izan–, baita araudia indargabetzeko proposamenak ere, Kontseiluak egindakoak.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

AZKEN XEDAPENA

Laudioko Udaleko Adinekoen Kontseiluaren barne-funtzionamendurako araudi hau ALHAOn osorik argitaratu eta hamabost egunera sartuko da indarrean, toki-araubideari buruzko arauetan ezarritako izapideak amaitu ondoren.

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.10.30 06:42:47 Z